

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



DOBERA

'Errementari' gaur, Sandiusterrin

Ikasturte berriarekin martxan jarri da berriro Zinea Euskaraz! egitasmoa. Gaur, 18:30etan Sandiusterrin *Errementari* pelikula ikusi ahal izango da, borondatearen truke, Dobera Euskara Elkartearen eskutik. ||

EUSKARA ARI DU

Kirol munduan ere euskera, kirolarien ahotan

'Kirola eta euskara' mahai-ingurua gidatuko du gaur, 19:00etan Biterin, Ander Txintxurreta kazetariak. Iritzia ematen izango dira Izaskun Zubizarreta, Joxe Kurutz Elozegi eta David Zurutuza.

HERNANIARRAK *Baietz Hernanik!* erronkarekin bat egitera animatzeko, hainbat ekitaldi antolatu ditu Euskara Ari Du egitasmoak. Larunbatean kale-erronkarekin xaxatu zituzten herritarrak.

Gaur, berriz, mahai-ingurua izango da, 19:00etan Biterin.

Euskera, kirol munduan

Euskerak kirolaren munduan zenbaterainoko garrantzia duen aztertuko dute mahai-inguruan, Izaskun Zubizarreta eskizatzale txapeldunak, Joxe Kurutz Elozegi Hernaniko Errugbi Elkarteko kirol-zuzendariak eta David Zurutuza Realeko jokalariek. Ander Txintxurreta kazetariak gidatuko du saioa.

Hurrengo ekitaldia urriaren 7an egingo da: *Ari du* abestia aurkezteko emenaldi berezia, abestiaren egileekin. ||



Hernanlar gehiago batu ziren larunbatean *Baietz Hernanik!* erronkara.

KONTSUMITZAILEEN BULEGOA ARGINDARRA

Argindarra ordaintzeko gizarte-bonoak, eskura

Eskaera egiteko urriaren 8ra arteko epea daukate dagoeneko gizarte-bono hori jasotzen dutenek. Aurrenekoz eskatu nahi dutenentzat irekita geratuko da epea. Enpresa elektrikoetan eskatzen da.

GIZARTE-BONOA da argindar konpainiek fakturan aplikatzen duten deskontu bat, eta hori jasotzea eskatzeko epea irekita dago.

Eskatzaile zaharrek epe laburragoa

Dagoeneko gizarte-bonoa jasotzen dutenek eskaera berritu behar dute urriaren 8a baino lehen, onura hori galdu nahi ez badute. Aurreneko aldiz eskatzeko, berriz, epeak ire-

kita jarraituko du.

Eskaerak enpresa elektrikoetan egin behar dira, bakoitzean eskura jartzen dituzten bideen bitartez.

Hainbat baldintza

Eskaera egin ahal izateko hainbat baldintza bete behar dira. Hasteko, deskontua ohiko etxebizitzako fakturan lortu daiteke, 10kW edo gehiagoko potentzia kontratatua badago. Era berean, araudian

agertzen diren beste baldintza batzuk ere bete behar dira.

Horrez gain, onura jasotzeko aukera izango dute familia ugariak, gizarte segurantzako gutxieneko pentsioa jasotzen dutenek, eta etxeko diru-sarrerak urtean hauek baino gutxiagokoak dituztenek: adingaberik gabeko familietan 11.279,39 euro; adingabe batekoetan 15.039,18 euro; eta bi adingabeekoetan 18.798,98 euro. Familiako kideren batek

%33ko ezgaitasuna badu, edo terrorismo edo genero indarkeriako biktima bada, mugak haundiagoak dira.

Informazio gehiago enpresa elektrikoetan ematen dute, baina enpresak bonoa jasotzeko ezetza ematen badizu eta baldintzak betetzen dituzula uste baduzu, Hernaniko kontsumo bulegora jo dezakezu erreklamazioa jartzera: Sandiusterrira: 943 55 78 54 / marian-o@hernani.eus. ||

GOIZ EGUZKI

Antzerki musikatua berriro, gaur

Lehenengo asteko arrakasta ikusita, gaur 19:30etan berriro egingo dute *Cantores y cantoras* ikuskizuna Biterin, Goiz Eguzki eta Ozenki abesbatzek eta Zelanda Antzerki Taldeak. Gonbidapenak bertan eskatu behar dira. ||

Gimnasia berriro, astelehenetik

Goiz Eguzkiko erabiltzaileek astelehenean hasiko dituzte gimnasia saioak, kiroldegian. ||

UDALA

Atsegindegi berritu, nola?

Gaur aurkeztuko da Atsegindegi berritzeko proiektua. Biterin egingo da bilera, 19:00etan. ||

Arte-sorkuntzarako laguntzak, hizpide

Kultura batzordeko bilera egingo da gaur 18:00etan, udal-txean. Diru-laguntza batzuen justifikazioak eta 2018ko kale arte sorkuntzarako diru-laguntzen oinarriak landuko dira, besteak beste. ||

SORKUNTZA GUNEA

Aurkezpena, gaur

Hernaniko Sorkuntza Gunea proiektua garatzen ari dira hainbat herritar, eta gaur jendaurreko aurkezpena egingo dute, 19:30etan Tilosetan. «Etorri gurera! Etorri herria egitera», luzatu dute gonbidapena. ||

ADAHIGI

Tailerra, TDA-Hz

ADAHIGI elkarteak tailerra eman- go du Biterin, 18:00etan, TDA-Hz izan dezaketen hauren guraso eta irakasleei zuzenduta. ||

Latxe
Urumeako ur-titilatan barrena

Bigarren alea kalean!
Jaso nahi izanez gero egin harpide!
latxe@kronika.eus
943 33 08 99

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTZALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOA

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20
www.funerariarorbegozo.com

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDONIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

